

Erabilera planak

1 990-95 plangintzaldian administrazioetako langileak euskalduntzen egindako ahaleginari ahalik eta erabilera etekinik handiena ateratzea izango da 1997-2002 plangintzaldiaren helburu nagusia. Hau da, langileek lortutako hizkuntz gaitasuna lana euskaraz egiteko benetako gaitasun bihurtzea.

Hizkuntz ezagutza hutsak, berez, ezin duenez bermatu, inolako arlotan, hizkuntz erabilera, euskararen erabilera areagotzeko plan zehatzak jarriko dira abian administrazioetako erakunde guztietan. Plan horiei *erabilera plana* izena ipini zaie eta metodologia jakin bati jarraituz aplikatuko dira.

Erakunde bakoitzak bere plana diseinatuko du eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzari aur-

keztuko dio, haren onspena jaso dezan. Planak helburu jakinak lortzera zuzenduko dira, horretarako erakundearen jardunaren azterketa zehatza egingo da. Bere jarduna, hots, espediente eta tramitazioen urrats guztiak, zehatzsunez ezagutuz gero, errazago jakingo baita euskararen erabilera tramitazioaren zein puntutan dituen oztopoak eta eurok konpontzeko zein baliabide jarri behar den.

Bergarako eta Antzuolako mikroplanak

Erabilera planen eraginkortasuna neurtu eta erabilera areagotzeko metodologia egokia finkatze aldera, mikroplan bana jarri zen abian Bergara eta An-

tzuolako udaletan 1995-96 bitartean. Mikroplan horien arduradulek eurek eta Eusko Jaurlaritzako HABEK, HAEEK eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak dute.

Hiru urterako plan hauen azken balorazioa urriaren 7an egin da Bergarako Jarraipen Batzordean. Hona labor-labor balorazio txostenean jasotakoak:

- * Langileen planarekiko motibazioa lortu behar da; horretarako, komeni da langileak lanean parte hartzera zuzendutako metodologiak erabiltzea. Alde horretatik, udalean sortutako komunikazio zirkuluak benetako eragina izan du.
- * Beharrezkoa da agintarien planarekiko jarrera ona eta konpromezu eraginkorra.
- * Erabilitako metodologia egokia gertatu da erakundearen hizkuntz normalizazio bideratzeko.
- * Zenbait normalizazio ekintza bideratu ahal izateko ezinbestekoa da ahalik eta erakunderik gehien indarrak batzea eta norabide berean jartzea.

Komunikazio zirkuluak

Langileak eta agintariak bildu eta euskararen erabilera prozesuan sortutako arazoei iren-

S U M A R I O A

- 1** Erabilera planak
- 2** Laburrak
Gozategi
Kontuan hartzeko
- 3** Euskara aztergai
Ameriketako
Kultur ELEjira
Deialdiak
- 4** Izen-abizenek
Lehen begiratuan
Galeuzca Andorran

bideak eman eta planaren ibilbidearen norabide zuzena bermatzeko sortutako lantaldeak dira.

Komunikazio zirkuluen bidez, erakundeko kide guztien planarekiko jarrera eraginkorra lortu nahi da. Horretatik, oso garrantzitsua da, besteak beste, kide guztiei, agintari zein langileei, helaraztea planari zein hizkuntza normalizazioari buruzko informazioa, euren asmoak eta indarrak norantz zuzenduta doazen argi izan dezaten eta, une oro, urrats guztien berri izan dezaten. Era berean, erakundearen kide guztien arteko komunikazioa bideratzen laguntzea izango da zirkuluen beste zereginetako bat.



✕ Administrazioan geroz eta gehiago dira euskaraz lan-tresna dutenak.

LABURRAK

Hezkuntza Eleaniztunari Buruzko
III. Jardunaldiak

Euskal Herriko ikastetxeek, Europako askok eta askok jada egin duten bezala, aurre egin beharko diote gainera datorkien etorkizun eleaniztunari. *Gaztelueta Fundazioak*, Eusko Jaurilaritzaren eta beste hainbat lankideren laguntzarekin, *Hezkuntza Eleaniztunari Buruzko III. Jardunaldiak* antolatu ditu azaroaren 6, 7 eta 8an Gasteizko Europa Biltzar Etxean.

Jardunaldi hauetako mahainguruetan eta emanaldietan, orain arte arlo horretan

egin diren hainbat esperientzia alde batera utzi gabe, bai plangintzari bai eraketari buruzko galderei erantzuten saiatu dira. Besteak beste, Kanadatik eta EEBBetatik etorritako adituek eleaniztasuna, murgiketaren pedagogia eta beste hainbat gai izan dituzte mintzagai.

Euskalduntze eta Alfabetatzerako
Diploma

Bosgarren urtez jarraian antolatu da Euskal Herriko Unibertsitatean, Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailaren gidaritzapean eta Euskal Kulturaren Batzarrak bultzatuta. Euskaltegietan nahiz ikastetxeetan gazte eta helduei irakasten diharduten irakasleei eta, ikaskuntza-irakaskuntza gertutik ezagutu nahi duten profesionali zuzenduta dago. Diploma ikasturte honetan hasi eta 1999ko irailean bukatuko da. Diplomak 450 ordu (45 kreditu) ditu guztira. Horietatik 260 ordu (26 kreditu) teorikoak eta 190 ordu (19 kreditu) praktikoak dira. Bigarren hizkuntza irakasteko pedagogia eta didaktika arloak hartzen du zatirik handiena ikas programan, baina irakasleari beharrezko zaizkion beste disziplina batzuen oinarriko ezagutzak ere landuko dira, hala nola talde-psikologia, psikolinguistika, soziolinguistika eta ikertzeko metodologiak.

GOZATEGI

U da honetan euskal kantagintzaren mundua aire berriez etorri zaigu. Duela hiru urte inork ez zuen Gozategi izena ezagutzen eta orain, 22.000 disko saldu ondoren, oso jende gutxirentzat dira ezezagunak. Euren abesti xamurrek eta ikasterrazek aparteko kutsu alai eman diote euskal kantagintzari. Inolako zalantzarik gabe, adin guztietako jendeak uda honetan euren abestiren bat ibili du ezpainetan. Gozategi fenomenoaz hitz egin ote daiteke? Beren abestiak, bereziki *Nirekin* izenekoa, irrati eta festa guztietan entzun dira. Musikarako zaletasuna aspalditik badute ere, 1993tik hona egin dira gure artean ezagun. Hasieran, Asier eta Ainhoa



Gozategi anai-arrebak ibili ziren trikitiaren doinuak panderoaz lagunduta han eta hemen zabaltzen. Gerora hasi zen Iñigo Goikoetxea urdiaindarrarekin jotzen. Haeuz gain, Rufo Urbina bateriajolearen eta Fran Iturbe gitarrajolearen laguntza ere badute. Kontzertuak Euskal Herriko leku gehienetan eman dituzte: Hegoaldeko lau herrialdeetan, batez ere Gipuzkoan eta

Bizkaian, eta baita Iparraldean ere. Euskal Herrikan kanpo, Galizian eta Katalunian izan dira. Iaz Argentinan izan ziren eta aurten ere Rosario hiriko Euskal Etxeak antolatutako Euskal Jaietan parte hartu dute. Udazkenerako bi abestiz osatutako single bat ateratzea espero dute eta datorren urterako disko bat prestatzea ere buruan dute. Aurrera eta zorte on!

KONTUAN HARTZEKO

Euskadiko XIV. Euskal Antzerki
Topaketak

Euskadiko XIV. Euskal Antzerki Topaketak egingo dira Azpeitian, abenduaren 1etik 21era bitartean. Euskal Herriko sei-zazpi taldek izango dute bertan parte hartzeko aukera. Urtero bezala, aurten ere antzerki emanaldiak, erakusketak, irratsaioak, eskola antzerkia eta beste hainbat ekitaldi eskainiko dira. Emanaldiak Zelaitxo zinemaren izango dira.

Lekeitioko Euskal Zinema eta Bideo
Bilera

Lekeitioko Udalak hainbat erakunderen laguntzarekin XIX. *Lekeitioko Euskal Zinema eta Bideo Bilera* antolatu du. Beste baldintza batzuen artean, lanak euskaraz izatea eskatzen da; hortaz, edozein zinegile edota bideoagilek parte har dezake, beti ere aurkezten duen filmea edo bideoa jatorriz euskaraz egina denean. Bilera 1996ko abenduaren 4, 5, 6 eta 7an Lekeitioko Antzoki zinemaren ospatuko da.

★ **Ahoz aho, belaunez belau... hil honetan non?**

Azaroaren 4tik 17ra Legazpin
Azaroaren 18tik abenduaren 1era Ordizian
Azaroaren 25etik abenduaren 12ra Tolosan

Euskara aztergai Ameriketean

Bolivia, Guatemala eta Kolonbiatik etorritako zazpi aditu gure artean izan dira, euskararen normalizazio prozesua zuzenean aztertze-ko. Bisita Hizkuntza Politikarako Sailordetzak antolatu du, Kanpo Harremanetarako Idazkaritzaren laguntzaz.

Boliviatik, Gobernuko Pedagogi Zerbitzu Teknikoaren eta Nekazarien Konfederazio Sindikalaren ordezkariak eta Irakasleen Batzorde Nazionaleko idazkaria etorri dira. Kolonbiako ordezkariak, berriz, Indigenen Erakunde Nazionaleko bi buruzagik osatu dute, Arahuako Herriaren buruak eta Paez Herriarenak. Azkenik, Guatemalako ordezkariak, Maia Hizkuntzen Akademiako idazkaria eta bertako partaide bat izan ditugu.

Euskal Herrian egon diren hamar eguntan, hainbat esparrutan euskararen normalizazio prozesua gertutik ezagutzeko parada izan dute, besteak beste, herri administrazioetan, hezkuntza sisteman,



helduen alfabetatze eta berreuskalduntze alorrean. Euskararen erabilera komunikabideetan eta herri elkarteek egiten duten lana ere izan dute aztergai bisitariak. Bestalde, Ipar Euskal Herria ezagutzeko aukera izan dute Bolivia, Guatemala eta Kolonbiako ordezkariak, Ondare Egunean (Irisarri) parte hartu baitute.

DEIALDIAK

Caf-Elhuyar Zientzi Dibulgaziorako III. Sariak

Elhuyar Kultur Elkarteak eta Beasaingo CAF enpresak *Caf-Elhuyar Zientzi Dibulgaziorako Sariak* antolatu dituzte aurten ere. Ohi bezala, zientziaren eta teknologiaren dibulgazioarekin zerikusia duten lanak aurkeztu ahal izango dira; A mailan idazle berrien dibulgazio artikulua eta B mailan, dibulgazio liburuak. Lanak aurkezteko epea azaroaren 15ean amaituko da.

Agustin Zubikarai Narrazio Sariak

Ondarroako Udalak *Agustin Zubikarai Narrazio Sariak* lehiaketarako deia egin du. III. edizioa izango da aurtengoa. Euskal Herriko edozein bizilagunek jatorriz euskaraz, batuaz zein bizkaieraz, idatzitako literatur lanak aurkez ditzake. Edozein gai onartuko da, gutxienez 10 orrialdekoak eta gehienez 25ekoak izan behar dutelarik. Guztira hiru sari emango dira. Lanak aurkezteko azken eguna azaroaren 15a da.

Kultur ELEjira

UEMAn barruan dauden udalei, Hizkuntza Politikarako Sailordetzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari esker gauzatuko den kultur zirkuitua da. Mapan ageri diren herri txikiak abeslariak, dantza taldeak, antzerkilariak, kirolariak, etab. udalez udal dabilta urriaz geroztik hitzari lotuta euskarazko kultur ekintzak eskaintzen. Besteak beste, hitzaldiak, antzerkiak, kantaldi tertuliak, kirol tertuliak, izango dira, den-denak euskaraz.

Artea, Aulesti, Bermeo,
Dima, Etxebarria,
Gatika, Gamiz-Fika,
Gizaburuaga, Munitibar,
Zeanuri

Aizarnazabal, Altxaga, Altxo,
Baliarrain, Beizama, Elduain,
Gainza, Ikaztegieta, Itsasondo,
Leaburu, Lizartza, Orendain,
Orexa, Zaldibia

Aramaio

Arantza, Goizueta,
Leizua, Zubieta

X UEMA osatzen duten udalerrietan burutuko da Kultur ELEjira. Erne!



Iñigo Manzisidor. Lizardi Saria


Iñigo Manzisidorrek jantzi du aurten irabazlearen txapela Lizardi Sarian, bertsolari gazteen XX. ekitaldiko finalean. Zarauzko Zinema pilotalekuan izan zen saioa irailaren lehen astean. Iñigo Manzisidor Larrañaga 1977an jaio zen Zarautzen. Hamahiru-hamalau urterekin Zarauzko Bertso Eskolan hasi zen Pello Esnal maisu zuela. Handik urte betera abestu

zuen lehen aldiz jendaurrean, Lizardi Sarian, hain zuzen. Gerora, orain arteko Lizardi Sari guztietan eta beste hainbat txapelketatan ere parte hartu du bertsolari gazte honek. Gipuzkoako Txapelketa Nagusian ere aritua da, bertan nahiko paper polita egin zuelarik. Gaur egun Usurbilgo Bertso Eskolan dihardu.

Mikel Atxagak jasotako testigantzak

EAJ eta euskara (Ehun urteko bide malkartsua) izeneko liburua argitaratu berri du Mikel Atxaga idazleak. Bertan, EAJn izandako berrogeita hamar kideren biografiak bildu ditu egileak, euskararen hainbat arlotan lan franko egindako euskaltzale eta abertzaleak gogora ekartzeko asmoz. Mikel Atxaga Urnietan jaio zen 1932an. Euskal komunikabide askotan kolaboratu izan du

bere bizitzan zehar; 1971. urtean *Zeruko Argian* hasi zen lanean eta 1977az geroztik, *Deia* egunkarian dihardu. Literaturari dagokionez, bereak dira, aipatuaz gain, *Deiadarra* izeneko artikulu bilduma, *Gaztetxo*, *Ezkontza bidean* eta Bidegileak sailaren barruan argitaratutako *Xalbador*. Horiez gain, itzulpen lan asko egina du Urnietako idazle eta kazetariak.




Galeuzca Andorran

Andorrrako Idazleen Elkarteak antolatuta, urriaren 17tik 20ra bitartean Andorran izan dira aurten Galeuzcako topaketak. Literatura Zibernetikaren Aroan izan dute gaitzat. Galizia eta Kataluniako partaideekin batera, Euskal Herriatik dozena bat idazle izan da Andorran: Iñaki Zabaleta, Xabier Kaltzakorta, Itxaro Borda, Luis Fernandez eta Txema Larrea, besteak beste. Azken honek zuen, hain zuzen, txosten nagusiaren ardura eta *Ahozkotasanetik teknologia berri* gaitzat hartuta ahozkotasanaren galeraren deskribapen nahikoa ezkorra egin zuen. Ildo horretatik eta Euskal Herriari dagokionez, gure kultura ia osorik ahozkoa izan dela azpimarratzeaz gain, euskal identitateari eusteko ahaleginean euskarazko komunikabideen eta Interneten bestelako erabilera asmatu beharko litzatekeela adierazi zuen. Aurten ez da, beste urteetan bezala, agiri komunik egin, baina argi utzi dute proiekturen batzuk bideratzeko gogoia. Euskal Idazleen Elkarte eta Galiziako eta Kataluniako bere parekoak laster Galeuzca berri batean lot daitezke beharbada, sarearen bidezko Galeuzca 'on-line' bitxi batean. Hurrengo bilgunea Euskal Herria izango da, Euskal Idazleen Elkarteak antolatuta.

Lehen begiratuan

Komikiaren ehun urteak betetzen direla eta, *Bertsolari* aldizkariaren egileek ere omenalditxo bat eskaini nahi izan diote komikiari. Bertsolaritza garai bateko ahozkotasan peto eta gordin hura aberasteko arlo berriak lantzen ari den aro honetan, *Bertsolari* aldizkariaren azken aleak bertsoa eta komikia, gidoia eta marrazkia, ezkondu eta uztartu nahi izan ditu. Bi atal dauzka *Bertsokomik*-ek: lehenbizikoan, bertsolariek prestatutako gidoiari marrazkigileek irudiak jarri dizkiete. Bigarrenean, berriz, bertsolariak marrazkigile ageri zaizkigu. Bi ataletan bertsolariak gai librean aritu dira.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

